

Baztango Talde Ekosozialak Elizondoko parke eta berdegune publikoen trataera aldatzea proposatzen du, eremu horiei konplexutasun handiagoa emanez, bertzeren artean, landaredi-geruzak konbinatuz eta ongi planifikatutako azpiegitura berdeetan bilakatuz. Horren helburua da biodibertsitatea handitzea eta klima aldaketara egokitutako hirigintzarekin lerrokatzea.

Zeren Elizondo eta Baztango gainerako herrietako parke eta berdegune publikoak lorategi apaingarrien gisan tratatzen baitira, biodibertsitate aberatsa duten ekosistema konplexuak sortzeko aukera ematen duten lekuen orde.

Hortaz, aipatu ditugun helburuetarako, jarraian, gure proposamena kontzeptu eta eskuhartze desberdinekin aletuko dugu:

### **Lorategi apaingarritik azpiegitura berdera**

Europako Batzordeak azpiegitura berdeei buruz ematen duen definizioa hau da:

*“Estrategikoki planifikatutako kalitate handiko naturguneen eta esparru erdi-naturalen sarea, beste ingurumen-elementu batzuekin, ekosistemen zerbitzu-sorta zabala emateko eta biodibertsitatea babesteko diseinatua eta kudeatua dagoena, bai landa-eremuetan, bai hiri-eremuetan, ”*

Hortaz, horren bidez, hiriko edota herri gunetako ekosistemek mikroorganismo, flora eta fauna autoktonoen espezie kopuru jakin bati baldintza egokiak edo habitatak eskaintzen dizkiete.

Aipatutakoan sakonduz, kontuan hartu behar da zuhaitz , zuhaixka , sastraka eta beste landarediek (bertakoak edota klima eta ingurune fisiko hortara egokitutakoak) hainbat zerbitzu ekosistemiko eskaintzen dituztela, hala nola; klimaren erregulazioa (karbonoa harrapatu eta biltegitratzeko gaitasuna baitute); tenperatura altuak moteldu, hots, hiriko bero-uhartearen efektua murriztea; asotsa murriztu, airearen kalitatea erregulatu, ziklo hidrogelikoaren erregulazioa: infiltrazioa eta urari eustea; lurraren emankortasuna hobetu, polinizazioa eta haziak sakabanatzea (hegazti eta intsektu polinizatzaileentzako habitat aproposak direnean); biodibertsitatearen kontserbazioa (habitatak, espezieak eta dibertsitate genetiko mantentzea); kontrol biologikoa (biodibertsitatea sustatzeko eta gaixotasun infekziosoen bektorez elikatzen diren espezie jakin batzuk-adibidez hegazti intsektujaleak- ezartzeko) ingurumen -hezkuntza, ezagutza zientifikoa eta tradizionala, aisialdia , paisaiaren gozamen estetiko<sup>1</sup>

Horiek denak, bertze gisa, funtzio ekosistemiko moduan ere ezagunak dira.

Eta aipatu dugunak, bat egiten du, adibidez, Udaleko Klima eta Energia Jasangarriaren aldeko Ekintza Planean (KEJEP) heldu den kontzeptuarekin, 4. lerroan heldu baita Klima aldaketara egokitutako hirigintza sustatu beharra.

---

<sup>1</sup>EE.AA; (2020). *Gida praktikoa ekosistemen zerbitzuak lurralde-eta hirigintza-plan eta-programen formulazioan integratzeko*. EHU

## Parke homogeenetatik, berdegune konplexuetara

Gaur egun gure herrietako parkeak arrunt homogeenak dira, trazadurak, materialak, espezieak eta espazioak berdinak dira parke eta lorategietan, soropiletan –mantentze-lan intentsiboa eskatzen dutenak- eta zori gutiago edo gehiagoko zuhaitzetan oinarrituak – etengabeko inausketak direla eta-.

Parke homogeen horien tokiko nortasuna berreskura daiteke berdeguneen diseinu konplexuagoarekin, eta modu horretan, hiri-paisaiaren sinplifikazioa eta homogenezazioa lehengoratu, gure latitudeetan ohikoak ez diren konposizio eta landaketak ordezkatzuz, hala nola, soropilak.

Zeren zela batek nekez bete baititzake azpiegitura berde baten ezaugarriak, eremu antzua baita. Izan ere, Biodibertsitateak paisaia mosaikoa behar du: lurra eta lur biluzia, heskaiak, belardiak, harkaitzak, baratzeak, zuhaitzak...

Hortaz, berdeguneen konplexutasuna lortzeko, basoko landaredi-eremuak txandakatu behar dira, eta espezie autoktonoko zuhaitziak, heskaiak eta fruituak ematen dituzten zuhaixken unadak<sup>2</sup> sartu behar dira, ur-elementuak sartu... Landaredi-geruzak (belarra, zuhaixkak eta zuhaitzak) konbinatuta, biodibertsitate handiagoa lor daiteke eta konektagarritasun ekologikoa handitu.<sup>3</sup>

## Azpiegitura berde eta berdegune konplexuak egiteko proposamenak

Aitzineko kontzeptuetan eta helburuetan oinarriturik hainbat eskuhartze proposatzen ditugu segidan<sup>4</sup>:

- Espazio publikoetako berdeguneetan, parkeetan, barne landarediaren geruza desberdinak sartzeari, hots, bertako edota ingurura egokitutako eta inbaditzaileak ez diren zuhaitz, zuhaixka, sastraka eta landare belarkarak sartzeari; ezinbestekoa baita hainbat espezieren aterpe izateko eta goitien aipatutako ekosistemen zerbitzuak bultzatzeko, besteak beste hegazti, ugaztun eta narrastiak. Hauek, ibiltariengandik eta harrapariengandik ezkutatzeko lekuak aurkituko dituzte bertan eta baita elikagaiak, intsektuak esaterako; zeinak gainbeheran dauden hegazti batzuen populazioaren berreskurapenean lagundu dezaketen, biodibertsitatean betetzen dituzten hainbat funtzio indartuz eta gizakiaren osasuna bultzatuz
- Ibilbide bateko zuhaitzen ondoan sastraka lerroa landatzeak edota zuhaixka-sail bat parke batean, parterre edota unada trinkoen gisa, korridore ekologiko bat egiten du, habitaten jarraikortasuna bultzatuz eta honela hainbat espezieren galera ekidinez

---

<sup>2</sup> Gazteleraz *bosquete* edo *rodal*

<sup>3</sup> EE.AA; (2022). *Convivir con la biodiversidad*. Ecologistas en acción

<sup>4</sup> EE.AA; (2021). Fundación Renovables, *Conservación de la naturaleza en el entorno urbano. Análisis de la pérdida de biodiversidad, causas, consecuencias y acciones para revertirla*. Fundación Renovables

- Heskai biziak sartzea, zeinak egitura trinko eta konplexuak diren, hainbat espezie, adin eta portez osatuak; zuhaitzak eta zuhaixkak, aihenak eta hostoerorkorrak nahiz hostoiraunkorrak, loreak eta fruituak ematen dituzten espezieak barne. Heskai biziak fauna onuragarri edo laguntzaileak erakartzen dituzte, hau da, izurrite eta gaitzak kontrolatzeko balio dute –kontrol biologikoa-, lurraren osasuna mantentzen eta polinizazioa sustatzen laguntzen duten intsektu, araknido eta nematodoak erakartzen dituzte (kattalingorri , kakalardo, gauenara, larrepotikak, apoak, kaskabeltza, etab..), eta gai kimiko plagiziden erabilera mugatzen dute.
- Segatu gabeko sailak uztea belardiak sortzeko, sega selektiboaren teknika aplikatuz. Belardi mota hauek aldaketa nabariak jasanen dituzte urtaroen arabera, udaberrian loratuz, udan astinduz edo neguan izoztuz, eta horrekin batera urtaroen erritmoa gure eguneroko bizipenetan sartuz. Segaldiak murrizten diren eremu horiek prozesu naturalak errazten dituzte. Belardiek funtzio ekologikoak dituzte, eta, horrela, biodibertsitaterako eremu interesgarri bihurtzen dira; han, ornogabeak garatzen dira, batetik, elikatzeko aukera emanez txori-espezie batzuei; eta, bestetik, gune horretarako beharrezkoa den faunaren aterpe gisa jardunez. Bestalde, loratzearen bidez, ekosistementzat hain garrantzitsuak diren intsektu polinizatzaileei janaria ere eskaintzen zaie.



*Figura 10. Siega selectiva en un parque de Reus.  
Fuente Jordi Inglés.*

- Belardiaren ordean, basa-loreak dituzten belardiak jar daitezke, oso mantentze-lan txikia dutenak eta edertasun handia. Belar txarren (basalandareak) kontzeptua nekazaritzatik heldu da. Garai batean pentsatzen zen belarrek ekoizpenarekin lehiatzen zutela. Ikuspegi hori bera herriguneetara eraman da, non belarra duten txorkoak edo

parterreak zikinkeria eta atsekabearen sinonimoak dira. Haatik, landare basatiek onura hauek dituzte: higadura eta lurzoruaren isurketa murriztea; lekadunek nitrogenoa finkatzea eta biodibertsitatearen mantentzea haziak eta izurriteen kontrol biologikoa eginez. Gainera, ura aurrezten da mantentze-lanik behar ez dutelako, eta mikro eta makrofauna babesten dute.

- Zuhaitzen txorkoetan basa landareak landatu:lurraren emankortasun eta aireztapena eta permeabilitatea sustatzen dute, zeina garrantzitsua den zuhaitzaren garapenerako, landare-bioaniztasuna eta fauna lagungarria erakartzen dute, “zabortegizat” jotzen diren gunen horien estetika hobetzen dute, besteak beste.

Beste jarduera ildo bat txorkoak tratatzea da, landaretza espontaneo haztea ahalbidetzeko edo lore basatien hazien nahasketekin ereiteko, landare usaintsuak eta polinizatzaileentzako espezie erakargarriak landatuz. Hori bera herritarren parte hartzearekin egiten ahal da. Basoko loreak edo zuhaitzen txorkoetan berezko landaredia indartzeko neurri simple eta merke horrekin, argazkikoa bezalako emaitzak lortuko ditugu:



*Figura 11. Alcorque con hierbas espontáneas.  
Fuente: bichosyplantas.com.*

- Arbolen kimaketa egokia. Gomendagarria da Inausketen Europako Estandarrean jasotako metodologiaren jarraipena egitea eta zuhaitza hazten den bitartean gutxieneko interbentzionismo baten alde egitea. Azken helburu hori lortzeko, funtsezkoa da hiriko zuhaitzak landatu aitzinetik espezie egokiak aukeratzea eta heldutasunean izanen duen tamaina kalkulatzeko; horrela, gehiegizko esku-hartzeak saihestuko dira.
- Parkeetan mantendu beste egitura batzuk biodibertsitatea bultzatzen dutenak: adarrak eta enborrak pilatzea: anfibio eta narrastientzako babesleku gisa; zuhaitz zaharrak babestu, motzondoak eta enborrak kontserbatzea; egaztientzako, gauenarendako eta polinizatzaileentzako habia artifizialak jartzea; plagizidak eta herbizidak ezabatzea; kudeaketa ekologikoa izurriteen aurka.

- Oso garrantzitsua da udalek herriko zuhaitzia babesteko udal-ordenantzak egitea, inguruan babes perimetro nahikoarekin ager daitezkeen obra edo gertakarien aitzinean behar bezala kontserbatzen direla ziurtatuz, sustraien esposizioa saihestuz, enborra behar bezala babestuz eta abar.
- Era berean, garrantzitsua da ordenantza horrek udalerrian dauden zuhaitz monumentalak edo zaharrenak identifikatzea eta babestea.

### **Aipatutako proposamenak egin daitezkeen lekuak**

Orain artio hainbat kontzeptu eta helburu aipatu ditugu, baita eskuhartze zehatzak ere. Orain, horiek Elizondoko zein tokitan egin daitezkeen agertuko dugu, argazkien bidez:







### **Bukatzeko, berdegune publikoen batzordea**

Elizondoko eta Baztango parke eta berdeguneetan egin daitezkeen aldaketa eta eskuhartzeak, ezbairik gabe, udalak lan horietarako kontratatua duen enpresarekin egin beharko lirateke. Horiek, beharko lukete toki bakoitzerako proposamen zehatza diseinatu.

Horrela, aipatu dugun guztia aitzinatzeko, interesgarria izan daiteke gaian interesa dutenekin batzorde edo lan-talde bat osatzea, maiztasun jakin batekin egiten ari denaren gainean gogoetatu, ebaluatu eta proposamenak aurkeztu ahal izateko. Halakorik sortuko balitz, Baztango Talde Ekosoziala hor parte hartzeko prest legoke.

Baztanen, 2024ko irailan.